

Bidaia-arien sarrerak %14 eta gualdiak %19 jaitsi ziren 2008ko apirilean

Urteko lehen lau hiletako balantzean, bai sarrerek, bai gualdiek aurreko urtean bezalaxe jarraitu zuten

Eustaten datuen arabera, 2008ko apirilean 159.094 bidaia-rik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 25.500 gutxiagok; %14ko jaitsiera. Bidaia-rien sarrerak %15 jaitsi ziren Araban, %14 Bizkaian eta %13 Gipuzkoan, 2007ko hilabete beraren aldean.

Estatutik etorritako bidaia-rien sarreretan %18ko jaitsiera izan da 2007ko apirilaren aldean, eta atzeritik etorritakoen sarreretan %4koa. Estatutik etorritako bidaia-rien kopurua jaitsi egin zen hiru herrialdeetan: Gipuzkoan %22, Bizkaian %15 eta Araban %14. Atzeritarren kopurua hazi egin da Gipuzkoan (%12); eta txikitu Araban (%-19) eta Bizkaian(%-12).

2008ko apirilean erregistraturiko gualdiak 285.405 dira, hau da, iazko apirilaren aldean %19ko jaitsiera, 67.000 gualdi gutxiago. Gualdiek urte arteko bilakaera negatiboa izan dute hiru lurraldeetan: %-20 Araban eta %-19 Gipuzkoan eta Bizkaian.

Batez besteko egonaldian %6ko jaitsiera dugu: Euskal AE osotara hartuta, lehengo urteko apirileko 1,91 egunetik urte honetako 1,79 egunera pasa da. Araban %6 jaitsi da, Bizkaian %5 eta Gipuzkoan %7.

Plazakako betetze-maila iazko apirileko %49,64tik aurtengo apirileko %41,38ra pasa zen. Jaitsierak hiru lurraldeei eragin die: Arabak %18koa du eta batez bestekoaren (%35,87) azpitik dago; Bizkaia eta Gipuzkoak antzeko betetze-maila dute apiril honetan, %42,39 eta %42,25.

Datuok aztertzeko orduan kontuan eduki behar da 2007an apirilean izan zela Aste Santua eta aurten martxoan. Erkaketa homogeneoa izan dadin, lehen lau hiletako datuak gehitu dira, aurreko urteko aldi berarekin erkatzeko.

Urteko lehen lau hilabeteetan 581.662 sarrera izan dira Euskal AE-ko hotel-establezimenduetan, igartzeko moduko aldaketarik ez 2007ko aldi beraren aldean. Gualdiak 1.061.911 izan dira, lehengo urtean bezalaxe ia. Bai batez besteko egonaldian, bai betetze-mailan 2007ko zifretan ibili gara: 1,83 egun eta ia %40.

1. taula. Euskal AEko 2008ko lehen lau hilekoko emaitzak

	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK			
	2.008	2.007	Aldea	Δ%
BIDAIARIEN SARRERAK	581.662	580.206	1.456	0,3
GAUALDIAK	1.061.911	1.067.103	-5.192	-0,5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,83	1,84	0,0	-0,7
BETETZE-MAILA	39,67	39,99	-0,3	-0,8

Nekazalturismoa: Jaitsi egin ziren bidaiarien sarrerak (%-24) eta gaualdiak (%-48)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 8.171 bidaiari-sarrera zenbatu ziren joan zen apirilean, aurreko urteko hil berean baino %-24 gutxiago: %-28 murriztu ziren Bizkaian, %-27 Gipuzkoan, eta %-9 Araban. Estatutik etorritako bisitariak %-26 gutxitu ziren Euskal AEn: Araban %-12 murriztu ziren, Bizkaian %-29 eta Gipuzkoan %-28. Euskal AEn %-3 atzerritar gutxiago izan da: Gipuzkoan kopuru hori %-8 murriztu da, Bizkaian %-13, eta Araban nabarmen egin du gora, %33.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 17.765 izan dira apirilean, lehengo urteko hil berean baino %48 gutxiago. Urte arteko tasak negatiboak izan dira Bizkaian (%-51), Gipuzkoan (%-49) eta Araban (%-37).

Bidaiariko batez besteko egonaldia jaitsi egin zen, 2007ko apirilaren aldean: duela urtebete 3,15 egunekoa izan zen; eta, azken honetan, 2,17koa.

Plazen betetze-maila %48,06tik %18,06ra jaitsi da lurralde guztietan izandako galeren ondorioz. Araban %-19,67, Bizkaian %-18,25 eta Gipuzkoan %-20,68.

2008. urteko lehen lau hilabeteetan 28.753 sarrera izan dira Euskal AE-ko nekazal-establezimenduetan, %1eko jaitsiera 2007ko aldi beraren aldean.

2008ko urtarrila-apirila denboraldiko gaualdiak 72.546 izan dira; %6ko jaitsiera, aurreko urteko aldi beraren aldean.

2. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	04 2008	%	04 2007	%	Δ %	04 2008	%	04 2007	%	Δ %	04 2008	%	04 2007	%	Δ %	04 2008	%	04 2007	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	285.405	100	352.248	100	-19	35.975	100	44.989	100	-20	137.852	100	169.260	100	-19	111.578	100	137.999	100	-19
Estatukoak	184.768	65	246.528	70	-25	27.495	76	35.056	78	-22	86.776	63	108.802	64	-20	70.497	63	102.670	74	-31
Atzerrikoak	100.637	35	105.720	30	-5	8.480	24	9.933	22	-15	51.076	37	60.458	36	-16	41.081	37	35.329	26	16
Hiriburua	172.620	60	213.912	61	-19	26.145	73	33.657	75	-22	89.397	65	108.062	64	-17	57.078	51	72.193	52	-21
Litoral	30.911	11	43.182	12	-28	-	-	-	-	-	10.149	7	15.484	9	-34	20.762	19	27.698	20	-25
Barnealdea	81.874	29	95.154	27	-14	9.830	27	11.332	25	-13	38.306	28	45.714	27	-16	33.738	30	38.108	28	-11
BIDAIA-RIEN SARRERAK	159.094	100	184.455	100	-14	21.834	100	25.686	100	-15	75.944	100	88.408	100	-14	61.316	100	70.361	100	-13
Estatukoak	107.457	68	130.709	71	-18	17.022	78	19.771	77	-14	50.481	66	59.608	67	-15	39.954	65	51.330	73	-22
Atzerrikoak	51.637	32	53.746	29	-4	4.812	22	5.915	23	-19	25.463	34	28.800	33	-12	21.362	35	19.031	27	12
Hiriburua	96.550	61	111.949	61	-14	15.624	72	18.614	72	-16	48.454	64	55.684	63	-13	32.472	53	37.651	54	-14
Litoral	16.477	10	20.566	11	-20	-	-	-	-	-	6.075	8	8.599	10	-29	10.402	17	11.967	17	-13
Barnealdea	46.067	29	51.940	28	-11	6.210	28	7.072	28	-12	21.415	28	24.125	27	-11	18.442	30	20.743	29	-11
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,79		1,91		-6	1,65		1,75		-6	1,82		1,91		-5	1,82		1,96		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	41,38		49,64		-17	35,87		43,54		-18	42,39		49,70		-15	42,25		51,94		-19
Hiriburua	46,14		56,37		-18	38,80		49,14		-21	48,34		58,25		-17	46,86		57,53		-19
Litoral	35,67		48,03		-26	-		-		-	29,09		40,01		-27	40,10		54,09		-26
Barnealdea	35,77		39,62		-10	29,87		32,54		-8	36,34		39,29		-8	37,26		42,83		-13
BETETZE-MAILA GELAKA	51,16		58,55		-13	45,24		51,13		-12	52,35		59,57		-12	52,07		60,40		-14
Hiriburua	55,99		68,53		-18	49,93		58,61		-15	57,39		72,50		-21	57,48		68,30		-16
Litoral	43,56		51,60		-16	-		-		-	37,75		44,10		-14	47,28		57,28		-17
Barnealdea	45,80		44,89		2	34,91		34,79		0	47,76		44,02		8	47,50		50,56		-6
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	17.765	100	34.037	100	-48	3.630	100	5.718	100	-37	5.380	100	11.049	100	-51	8.755	100	17.270	100	-49
Estatukoak	14.495	82	31.308	92	-54	2.817	78	5.336	93	-47	4.430	82	10.133	92	-56	7.248	83	15.839	92	-54
Atzerrikoak	3.270	18	2.729	8	20	813	22	382	7	113	950	18	916	8	4	1.507	17	1.431	8	5
BIDAIA-RIEN SARRERAK	8.171	100	10.791	100	-24	1.655	100	1.821	100	-9	2.492	100	3.446	100	-28	4.024	100	5.524	100	-27
Estatukoak	7.461	91	10.061	93	-26	1.484	90	1.692	93	-12	2.232	90	3.147	91	-29	3.745	93	5.222	95	-28
Atzerrikoak	710	9	730	7	-3	171	10	129	7	33	260	10	299	9	-13	279	7	302	5	-8
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,17		3,15		-31	2,19		3,14		-30	2,16		3,21		-33	2,18		3,13		-30
BETETZE-MAILA PLAZAKA	18,06		34,06		-47	19,67		31,61		-38	16,29		32,77		-50	18,67		35,89		-48
BETETZE-MAILA GELAKA	19,98		38,73		-48	21,34		35,92		-41	18,25		37,18		-51	20,68		40,93		-49

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp